



Honako itazkia bingoa bere tramiterako
..... Sallera
Pasa
..... para su trámite

2018 55A: 28
LASARTE-ORIA
IDAZKARI OROKORRAK

Islada ezkutatuak

Lasarte-Oriako oroimen historikoaren aldeko taldea
Asociación por la memoria histórica de Lasarte-Oria

ERAGOZPEN INSTITUZIONALA

Beren hondamenak, normalki irabazleen inposaketaren eraginez, ahazten dituzten giza taldeak, gizarteak, herriak, nazioak, klase sozialak, e.a., bigarren aldiz irteten dira galtzaile. Lehena, porrotaldi fisikoak eragindako da; eta bigarrena, ahaztuerak eragindakoa da; beren porrotaldiaren oroimena eta honi eusten dioten elementuak galdu izanaren ondorioz, hots, kontaktak, historiak, kondairak edo eta memoriaren lekuak galdu izanaren ondorioz.

Beharbada, ikuspegi militar eta politikotik, ahaztuerak lehen kapitulazioa sufritu zuten gizartearen behin betiko porrota esan nahi du.

Memoria historikoak bigarren porrota eragotzi nahi du; aitzitik, bere erreparazioa nahi du. Horretarako, historiaren prozesuan bizitutako porroten oinordeko sentitzen den gizarteak egon behar du, gertatutakoa gogoratzeko, aldarrikatzeko eta kalte ordaina emateko borondatea eta gaitasuna edukiko duena.

1936ko uztailearen 17an, eta Melillako protektoratuko Afrikako lurraldeetan, gobernu konstituzional eta demokratikoaren aurkako estatu kolpea gertatu zen, 16an eta 23an egin ziren hauteskundeetatik irten zenaren aurka hain zuzen. Porrot egin zuen estatu kolpeak, eta 1936ko abuztuaren erdialdean, ezerezean geratu zen bere bideragarritasuna.

Kolpe zaleek ez zuten onartu porrota, eta garaiko Europako potentzien laguntzaz, Adolf Hitlerren Alemania naziaren eta Benito Mussoliniren Italia faxistaren laguntzaz, gobernuaren, instituzioen eta biztanleri zibilaren aurkako gatazka militarra piztu zuten. Herri osoa bi urte, zortzi hilabete eta hamasei egun, hots, 989 egun iraiz zituen gerra batera eramane zuten, gobernu eta instituzio demokratikoak zanpatzarekin amaitu zena 1939ko apirilaren 1ean.



Islada ezkutatuak

Lasarte-Oriako oroimen historikoaren aldeko taldea
Asociación por la memoria histórica de Lasarte-Oria

Garaipen horrek XX. mendeko hondamendi humanitario, soziala eta ekonomikorik handiena eragin zion gizarteari.

Gatazka militar horretan galtzaile irten ziren gizarte demokratikoko haur, emakume eta gizonak, modu bortitzean jasan zuten errepresio fisikoa, ekonomikoa, judiziala, administratiboa, linguistikoa, generokoa, morala..., 1939ko apirilaren lehen jaio zen diktadurak bultzatuta. Armen indarrez ezarritako sistemaren biktima bilakatu ziren, euren sinesmen politiko eta sozialak eta hauteskunde libre eta demokratikoetatik irteerako gobernu eta instituzioak babesteagatik eta hori guztien alde borrokatzeagatik.

Instituzio publiko guztietatik sistematikoki baztertu egin zen gizarte sektore honek ikusezintasun administratibo eta soziala jasan zuen 40 urtez, diktadura frankistak eragindako organo instituzionalak sustatutarik.

Gobernu konstituzionalaren aurka altxatutako militarren garaipenetik 77 urte iragan direlarik, memoriaren berreskurapenak eta gizarte sektore horrek sufritutako oinazeen aitormenak, udal honen eta antzeko instituzio publiko demokratikoen ekimen instituzionalak eskatzen ditu; gizarte demokratikoak haiekin daukan zor morala arintzen lagundu dezakete ekimen horiek.

Kongresuko batzorde konstituzionalak, 2002ko azaroan 20an, alderdi guztiek aho batez ez legezko bost proposamen onartu zituzten; hona zer zioen hirugarren atalak:

Diputatuen Kongresuak berresten du beste behin, gure gizarte demokratikoak Espainiako Gerra. Zibilean biktima izan ziren gizon eta emakume guztien, eta aldi berean, gerora errepresio frankista jasan zuten guztien aitormen moralari ekin behar diola.

Instituzioak premiatzen ditugu babestu dezaten biktima horien familiarrek zentzu horretan bideratu dezaketen edozein ekimen, are gehiago herri mailakoak badira, eragotziz betiere, zauriak irekitzea edo eta gatazka sozialerako txingarra piztea.

Esandako guztiagatik, Memoria Historikoaren aldeko Islada Ezkutatuak elkarteak, irizten du unea iritsi dela udal honek, modurik bortitzenean errepresio frankista jasan zuten haur, emakume eta gizonen aldeko aitormen publikoa egin dezan, eta, instituzio publikoek eta gizarteak haiekin zor morala daukatela aitortu dezan.



Islada ezkutatuak

Lasarte-Oriako oroimen historikoaren aldeko taldea
Asociación por la memoria histórica de Lasarte-Oria

Horrenbestez, Memoria Historiakoren aldeko Islada Ezkutatuak elkarteak, udalbatza osatzen duten alderdiei eskatzen die honako adierazpen instituzionala onar dezaten:

Lasarte-Oriako Udalbatzarra honako adierazpen instituzionala onartzen du:

1. Aitormen instituzionala adieraztea, 1936ko estatu kolpearen, eta ondorengo gatazka militarren eta diktadura frankistaren ondorioz errepresio fisikoa, ekonomikoa, judiziala, administratiboa, linguistikoa, generokoa, morala... jasan zuten pertsonen, bereziki azpimarratuz 1939ko apirilaren 1ean abian jarri eta berrogeiko hamarkadaren hondarrera arte luzatu zen aldi historikoa, non gosea, desterratzeak, fusilamenduak, torturak, kontzentrazio eremuetara bidaltzeak, isunak, lanpostuen galtzeak, langile batailoietako zigorrak... eguneroko bizimoduaren parte izan baitziren. Modu berezian azpimarratu nahi genituzke, euren familiarrak biktima izan zituzten herrikideak.
2. Institutuzio publikoek eta gizarte demokratikoak giza sektore honetik daukaten zor morala aitortzea.
3. Herritar horiei omenaldi publiko eta instituzionala eskaintzea, eta geure aitormena adieraztea, erakutsi zuten adorea, erresistentzia eta bizirik irauteko indarragatik eta gertatutakoaren oroimenari eutsi izanagatik.
4. Gure nahia adieraztea, ekitaldi publiko hau pertsona horientzat baliagarri izan dadin arintzeko jasan zituzten sufrimendu eta injustiziak legaltasuna, progresua eta demokrazia defendatzeagatik.

Lasarte-Oria, 2016ko uztailaren 12an.

